

**Giza Eskubideak eta Garapen
Jasangarriko Helburuak
Afrikako kontinentean**



ODSeando África

Afrikar emakumeen Garapen Iraunkorretarako
Helburuetan aurrera egiten



**GARAPENERAKO
LANKIDETZAREN
EUSKAL AGENTZIA**
AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN PARA
EL DESARROLLO



Si!

Nazioarteko Elkartasuna
Solidaridad Internacional

Eduki taula

1. Giza Eskubideei buruz	1
2. Giza eskubideen eskualde-mailako sistema Afrikarra	4
2.1) Afrikako emakumeen eskubideei buruzko maputoko protokoloa	5
3. 2030 agenda eta 2063 agenda	7
4. 5 GIH-a (Genero-berdintasuna) eta kontinente Afrikarra	9
5. 13 GIH-a (Klima babesteko ekintza) eta kontinente Afrikarra	11

1. Giza Eskubideei buruz

Giza Eskubideak gizartearen funtzionamendurako arauen multzo gisa aurkezten dira, eta estatuak nahitaez bete behar dituzte. Horrek esan nahi du gobernu batek, edo beste erakunde batek, Giza Eskubideen errespetua urratzen badu –bere ekintzarekin edo ez-egitearekin–, bere jarduna automatikoki zikindua dagoela eta nazioarteko komunitatearen esku-hartzea beharko lukeela praktika horiek zuzentzeko.

Hala ere, Giza Eskubideak eremu anbigua dira, eta zaila egiten da edukiari eta irismenari buruzko adostasuna lortzea. Era berean, bokazio unibertsal eta kosmopolita dute, nahiz eta jatorri historikoa Europako gizartean eta tradizio judu-kristauan izan, XIII. eta XIX. mendeetako Europako eta Ipar Amerikako iraultza burgesekin lortutako aurrerapenen artean kokatuta.

Munduko gerren izugarrikerien eta suntsipenaren ondoren, Giza Eskubideak sistematizatu, egituratu eta nazioarteko itunetan bildu ziren. Estatuak –itun horien kontrako bihurtuta–, nazioarteko zuzenbideari jarraitu eta beren gain hartu zituzten Giza Eskubideak errespetatu, babestu eta gauzatzeko betebeharra.

Horien artean:

- **Estatuak ez dute oztopatu behar giza eskubideak gozatu ahal izatea (edo ez dituzte horiek mugatu behar);**
- **Estatuak konpromisoa hartzen dute beren lurraldeetan gizabanakoen eta taldeen aurkako giza eskubideen abusuak eragozteko;**
- **Estatuak neurri positiboak hartu behar dituzte oinarrizko giza eskubideez gozatzea errazteko.**

Giza Eskubideei buruzko nazioarteko tresna juridikoen artean, nazioarteko bi itun eta zazpi hitzarmen nabarmentzen dira, beren eragin eta irismen geografikoagatik, eta horietako bakoitzak aditu-batzorde bat ezarri du Estatu Sinatzaileek ituna nola aplikatzen duten gainbegiratzeko. Itun horietako batzuk kezka espezifikoetarako buruzko hautazko protokoloekin osatzen dira..

Giza Eskubideei buruzko nazioarteko itun nagusiak

	Onarpen data	Ikuskapen organoa	Protocolos facultativos
Arraza-bereizkeria Mota guztiak Desagerrarazteko Nazioarteko Hitzarmena	1965eko Abenduak 21	Arraza Diskriminazioa Desagerrarazteko Batzordea	
Eskubide Zibil eta olitikoen Nazioarteko Ituna	1966eko Abenduak 16	Giza Eskubideen Batzordea	Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunaren Hautazko Protokoloa. Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunaren Bigarren Hautazko Protokoloa, heriotza-zigorra indargabetzeko helburua duena.
Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Ituna	1966eko Abenduak 16	Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Batzordea	Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Itunaren Hautazko Protokoloa
Emakumearen Aurkako Bereizkeria Mota Guztiak Desagerrarazteko Hitzarmena	1979ko Abenduak 18	Emakumearen Aurkako Bereizkeria Desagerrarazteko Batzordea	Emakumearen Aurkako Bereizkeria Mota Guztiak Desagerrarazteko Hitzarmenaren Hautazko Protokoloa
Torturaren eta Beste Tratu edo Zigor Krudel, Anker edo Iraingarrien Aurkako Hitzarmena	1984ko abenduak 10	Torturaren Aurkako Batzordea	Torturaren eta Beste Tratu edo Zigor Krudel, Anker edo Iraingarrien Aurkako Hitzarmenaren Hautazko Protokoloa

<p>Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena</p>	<p>1989ko azaroak 20</p>	<p>Haurren Eskubideen Batzordea</p>	<p>Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren Hautazko Protokoloa, haurrek gatazka armatuetan parte hartzeari buruzkoa.</p> <p>Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren Hautazko Protokoloa, haurren salmentari, haurren prostituzioari eta pornografian haurrak erabiltzeari buruzkoa.</p>
<p>Langile migratzaile guztien eta haien senideen eskubideak babesteari buruzko Nazioarteko Hitzarmena</p>	<p>1990eko abenduak 18</p>	<p>Langile Migratzaile guztien eta haien Senideen Eskubideak Babesteko Batzordea (CMW)</p>	
<p>Pertsona guztiak bortxazko desagertzeen aurka babesteko Nazioarteko Hitzarmena</p>	<p>1990eko abenduak 18</p>	<p>Comité contra las Desapariciones Forzadas Bortxazko Desagerpenen aurkako Batzordea</p>	
<p>Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Hitzarmena</p>	<p>2006ko abenduak 13</p>	<p>Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Batzordea</p>	<p>Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Hitzarmenaren Hautazko Protokoloa</p>

2. Giza Eskubideen eskualde-mailako sistema Afrikarra

Giza Eskubideak babesteko nazioarteko sistemarekin batera, joan den mendean babes-sistema erregionalak sortu ziren, non estatuek –hurbiltasun geografikoagatik edo ezaugarri historiko edo kultural komunak partekatzeagatik–, itun erregionalak sinatuz, giza eskubideak babesteko arau komunak ezartzea erabaki zuten.

Afrikar kontinentearen kasuan, 1981ean, Afrikako Batasunerako Erakundeak (gaur egun Afrikako Batasuna deitua) bere herritarren eta herrien giza eskubideak eta oinarrizko askatasunak sustatzeko eta babesteko tresna batez hornitzea erabaki zuen. **1981eko uztailaren 27an, Giza Eskubideen eta Herrien Eskubideen Afrikako Gutuna** (edo Banjulgo Gutuna) onartu zen, eta bost urte geroago sartu zen indarrean. Banjulgo Gutuna, gaur egun, kontinenteako 53 herrialdek berretsi dute, eta Afrikako giza eskubideen erreferentziazko tresna nagusia da.

Afrikako Gutuna antzinako kolonia askoren independentziaren testuinguruan idatzi zen; horregatik ezartzen du Gutunak ABE Afrikar Batasunerako Erakundearen konpromisoa antikolonialismorako eta "Afrikako zibilizazioaren tradizio historikoa eta balioak" sustatzeko, hori baita giza eskubideak interpretatzeko berezko gakoa.

Giza Eskubideen eta Herrien Eskubideen Afrikako Gutunaren ezaugarria da giza eskubideen tresna kontinental bakarra izatea, giza eskubide guztien interdependentzia eta zatiezintasuna jasotzen dituen, bai eskubide zibil eta politiko garrantzitsuenak, bai eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak. Gainera, hirugarren belaunaldiko eskubideak aitortu zituen lehen akordio kontinental izan zen. 19. artikulutik 24. artikulura herrien eskubideak daude jasota, horien artean: nagusitasun kolonialetik askatzeko eskubidea (20. artikulua); aberastasunerako eta baliabide naturaletarako eskubidea (21. artikulua) garapen ekonomiko, sozial eta kulturalerako eskubidea (22. artikulua).

Gutunean jasotakoaren jarraipena egiteko eta bertan ezarritakoa bultzatzeko, bi organo nagusi sortu ziren: Giza Eskubideen eta Herrien Eskubideen Afrikako Batzordea eta Giza Eskubideen eta Herrien Eskubideen Afrikako Gortea. Batzordeak giza eskubideen eta herrien eskubideen babesa sustatu, interpretatu eta bermatzeko erantzukizuna du. Giza eskubideen arloko dokumentuak biltzeko, eta azterlanak eta ikerketak egiteko agindua du. Halaber, mintegiak eta hitzaldiak antolatzea, informazioa zabaltzea, giza eskubideetan eta herrien eskubideetan interesa duten nazioko eta tokiko erakundeak animatzeko eta, hala badagokio, gobernuei iritziak edo gomendioak ematekoa.

Afrikako Gorteak, Giza Eskubideen eta Herrien Eskubideen Afrikako Batzordearekin batera, Giza Eskubideen eta Herrien Eskubideen Afrikako Gutuna aplikatzeko eta interpretatzeko eskumenak ditu esleituta; hala ere, oraindik ez dago eginkizunen banaketa argirik bi erakundeen artean. Adibide bat jartzearren, giza eskubideen urraketen biktimek ezin dituzte salaketak zuzenean Gortean aurkeztu, baina bai Giza Eskubideen Afrikako Batzordean, eta batzorde horrek, egoki baderitzo, Gortean aurkez dezake salatutako kasua.

2.1) Afrikako Emakumeen Eskubideei buruzko Maputoko Protokoloa

Afrikako emakumeak beren marjinazio- eta mendekotasun-egoeraz jabetu ziren pixkanaka eta, horren ondorioz, laurogeita hamarreko hamarkadaren erdialdetik, Giza Eskubideen eta Herrien Eskubideen Afrikako Gutunari Afrikako emakumeen eskubideak jorratzeko berariazko protokolo bat garatzeko eskatu zioten. ABEn batzarrak Giza Eskubideen eta Herrien Eskubideen Afrikako Batzordeari protokolo hori egiteko agindu zion. Lau urte geroago, Protokoloaren zirriborro osoa zegoen eskuragarri, baina emakume-talde batzuen kanpaina batek baino ezin izan zuen lortu Afrikako Batasunak (AB) 2003ko uztailaren 11n Maputon (Mozambike) egindako bigarren Batzar Nagusian Giza Eskubideen eta Herrien Eskubideen Afrikako Gutunaren Protokoloa onartzeko prozedura desblokeatzea. Protokolo hori Maputoko Protokoloa izenez ezagunagoa izan da, eta 2005eko azaroaren 25ean sartu zen indarrean, hamabost herrialdek berretsi ondoren (gaur egun, Afrikako Batasuneko 54 herrialdeetatik 49k sinatu dute protokoloa, eta 37k berretsi eta ezarri dute). Protokoloa sinatu eta berretsi ez duten Afrikako Batasuneko estatuak Botswana eta Egipto dira. Sinatu bai, baina berretsi ez duten estatuak hauek dira: Aljeria, Burundi, Txad, Eritrea, Etiopia, Madagaskar, Maurizio, Niger, Afrika Erdiko Errepublika, Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa, Sao Tome eta Principe, Somalia, Hego Sudan eta Tunisia.

Protokolo horrek andreen eskubideak bermatzen ditu, prozesu politikoan parte hartzeko eskubidea, gizonekiko berdintasun sozial eta politikorako eskubidea, haien osasun sexuala kontrolatzeko eskubidea eta emakumeen mutilazio genitalaren amaiera barne.

Era berean, protokoloak zehazten du estatuak andrazkoei osasun-zerbitzuetarako sarbidea bermatu behar dietela, bai eta emakumeei informazioa, hezkuntza eta

komunikazioa sustatzeko programetarako sarbidea ere. Gainera, emakumeen ugalketa-eskubideak ere babestu behar dituzte (14. artikulua, Osasunari eta Ugalketa-eskubideei buruzkoa). Artikulu horretan, emakumeen ugalkortasuna kontrolatzeko, metodo antikonzeptiboak aukeratzeko eta hiesaren aurka babesteko eskubidea berresten da. Era berean, andreek abortatzeko eskubidea dutela ezartzen du, bortxaketa edo intzestu kasuetan eta haurdunaldiarekin jarraitzeak amaren osasun fisikoa eta mentala edo amaren edo fetuaren bizitza arriskuan jartzen duenean.

Aldi berean, ezkontzeko gutxieneko adina 18 urtekoa da (6. artikulua). Alargunen eskubideak ere aitortzen dira (20. eta 21. artikulua): senarraren jabetzaren jaraunspenaren bidezko zati baterako eskubidea izango dute; printzipio hori bera aplikatzen da banantze edo dibortzio kasuetan. Hori aitoren garrantzitsua da, kontuan hartuta Afrikako herrialde askotan tradizioak jabetza-eskubidea kentzen diela emakumeei, eta alargunei gauza guztiak kentzen zaizkiela senarra hiltzen bazaie edo hildakoaren senide batek alarguna oinordetzan hartzen duela.

Afrikako emakumeen giza eskubideei buruzko Giza Eskubideen eta Herrien Eskubideen Afrikako Gutunaren Protokoloak ondorengo ibilbide instituzionala izan du.

Hauek dira mugarri esanguratsuenak:

- **Afrikako Batasunak 2010-2020 aldia Afrikako Emakumearen Hamarkada gisa izendatzea;**
- **Afrikako Batasunak genero-berdintasunari buruz egindako adierazpena (2004).**
- **Adierazpen horretan, estatu sinatzaileei eskatzen zitzaien etengabe jardun dezatela genero-berdintasuna lortzeko eta emakumeen eskubideei buruzko nazioarteko eta eskualdeko tresnekiko konpromisoa indartzeko;**
- **Aintzira Handietako Eskualdeko Nazioarteko Konferentzia, emakumeen eta haurren aurkako sexu-indarkeria prebenitzeko eta ezabatzeko Protokoloa onartu zuena (2006);**
- **Afrikako andrazkoen aurkako indarkeriari amaiera emateko UNiTE kanpaina (2008);**
- **Kampalan egin zen sexu- eta genero-indarkeriari buruzko konferentzian parte hartu zuten Estatuburuaren Kampalako adierazpena (2011).**

Zoritxarrez, tresna juridikoak egotea ez da nahikoa giza eskubideen urraketarekin amaitzeko; askotan, Afrikan, estatu ahulen errealitateak eragiten du testu juridiko-politikoetan definitutako arauak eta praktika pribatuak talka egiten dutenean, azkenak gailentzen direla.

3. 2030 Agenda eta 2063 Agenda

2015eko irailaren 25ean, NBEren Batzar Nagusiak aho batez onartu zuen une horretatik aurrerako garapenerako nazioarteko agenda zehazten duen dokumentua. Dokumentu honen izenburua hauxe izan zen: "Gure mundua eraldatzea: Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda".

2030 Agendarekin, nazioarteko komunitateak 17 helburu ezarri zituen, Garapen Iraunkorreko Helburuak (GIH) deiturikoak, mundua ekonomikoki garatu nahi duten helburu horiek pobrezia ezabatzea, planetaren mugak errespetatzea eta inor atzean ez uztea dute helburu. NBEren Batzar Nagusiak erabaki zuen herrialde bakoitzak duela helburu horiek lortzeko ardura, eta nazioarteko gizarteko kide guztiek –gobernuek, enpresek eta gizarte zibilak– parte hartu behar dutela.

2030 Agendak argi eta garbi planteatzen du nazioarteko zuzenbideari atxikitzea, 19paragrafoan giza eskubideekiko konpromisoa berretsita, honela: "berretsi egiten dugu Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren garrantzia, bai eta giza eskubideei eta nazioarteko zuzenbideari buruzko nazioarteko beste tresna batzuen ere. Nabarmendu egiten dugu, Nazio Batuen Gutunarekin bat etorriz, estatu guztiek dutela pertsona guztien giza eskubideak eta oinarrizko askatasunak errespetatzeko, babesteko eta sustatzeko erantzukizuna, inolako bereizketarik egin gabe arraza, kolore, sexu, hizkuntza, erlijio, iritzi politiko edo bestelako arrazoiengatik, jatorri nazional edo sozialagatik, posizio ekonomikoagatik, jaiotzagatik, desgaitasunagatik edo beste edozein baldintzagatik".

GIHak bat datoz, zuzenean, 2013an onartutako Afrikako Batasunaren 2063 Agendarekin. 2063 Agenda Afrikako kontinentearen garapen-plana da, 50 urteko epean garapen sozioekonomiko inklusiboa eta iraunkorra lortzeko. Kontinenteak helburu hori lortu nahi du hamar urteko bost planen bidez. 2063 Agendako hamar urteko lehen planak, 2014tik 2023ra bitartekoak, kontinenteak nazio, eskualde eta kontinente mailan lortu nahi dituen helburu-, lehentasunezko eremu- eta jomuga-multzoa zirriborratzen du.



Zehazki, 2063 Agendak zazpi helburu ditu:


- **Hazkunde inklusiboan eta garapen iraunkorrean oinarritutako Afrika oparoa;**
- **Kontinente integratua, politikoki batua, panafrikanismoaren idealetan eta Afrikaren berpizkundearen ikuspegian oinarritua;**
- **Gobernantza ona, demokrazia, giza eskubideen errespetua, justizia eta zuzenbidezko estatua izango dituen Afrika;**
- **Afrika baketsu eta segurua;**
nortasun kultural sendoa, ondare komuna, balioak eta etika izango dituen Afrika;
- **Pertsonak bultzatuko duten garapena izango duen Afrika, Afrikako herriaren potentzialean oinarrituta, batez ere emakume eta gazteena, eta haurren zaintzan;**
- **Afrika indartsua, batua, erresistentea eta munduan eragina duena.**

4. 5 GIH-a (genero-berdintasuna) eta kontinente Afrikarra

5. GIHk (Generoen arteko berdintasuna lortzea eta emakume eta neska guztiak ahalduentzea) lotura zuzena du andreentzako giza eskubideen babesarekin eta garapenarekin. Hauek dira GIH honetarako ezarritako jomugak:

- **Mundu osoko andrazko eta neskato guztien aurkako diskriminazio-mota guztiei amaiera ematea.**
- **Emakume eta neska guztien aurkako indarkeria-mota guztiak desagerraraztea eremu publiko eta pribatuan, sexu-salerosketa zein -esplotazioa eta beste esplotazio-mota batzuk barne.**
- **Praktika kaltegarri guztiak ezabatzea, hala nola haurren ezkontza, ezkontza goiztiarra eta behartua, eta emakumeen genitalen mutilazioa.**
- **Ordaindu gabeko zainketak eta ordaindu gabeko etxeko lanak aitortzea eta balioestea, zerbitzu publikoak emanez, azpiegiturak emanez eta gizarte-babeseko politikak formulatuz, bai eta etxean eta familian erantzukizun partekatua sustatuz ere, herrialde bakoitzean dagokionaren arabera.**
- **Andreen parte-hartze osoa eta eraginkorra zaintzea, bai eta bizitza politiko, ekonomiko eta publikoan erabakiak hartzeko maila guztietan lidergorako aukera-berdintasuna ere.**
- **Sexu- eta ugalketa-osasunerako sarbide unibertsala eta ugalketa-eskubideak bermatzea, Biztanleriari eta Garapenari buruzko Nazioarteko Konferentziaren Ekintza Programarekin, Bejingeko Ekintza Plataformarekin eta azterketa-konferentzien azken dokumentuekin bat etorriz.**

- **Andrazkoei baliabide ekonomikoetarako eskubidea berdintasunean ematen dieten erreformei ekitea, bai eta lurren eta beste ondasun batzuen jabetza eta kontrola, finantza-zerbitzuak, herentzia eta baliabide naturalak eskuratzeko eskubidea ere, lege nazionalen arabera.**
- **Teknologia instrumentalaren erabilera hobetzea, bereziki informazioaren eta komunikazioen teknologiarena, emakumearen ahalduntzea sustatzeko.**
- **Generoen arteko berdintasuna eta emakumeen eta nesken ahalduntzea maila guztietan sustatzeko politika egokiak eta lege aplikagarriak onartzea eta indartzea.**



Giza garapen urria genero-desberdintasun maila handiekin lotzen da, baina ez da berdintzatzen giza garapen handiaren kategoriarekin. Horregatik ondorioztatzen da erakundeak garrantzitsuak direla genero-ahalduntzerako eta genero-helburuak betetzeko, genero-berdintasunarekin lotutako 5. GIHan jasoak.

Kontinente afrikarrak –bertako herrialdeen artean alde esanguratsuak badaude ere– pobrezia-indize oso handiak ditu bereizgarri. Andre gehienek enplegu ezegonkorretan eta soldata txikien truke lan egiten dute, lanpostu hobea lortzeko aukera gutxirekin.

Hain zuzen ere, lan-ezegonkortasuneko egoera da beren eskubideak egikaritzeko emakume afrikarren gaitasuna mugatzen duten faktore nagusietakoa. LANEren datuen arabera, Afrikako 10 emakumetik 6k nekazaritzan lan egiten dute, eta NBGPK darabiltzan datuen arabera, andrazko afrikarrek kontinenteko lanaren bi heren garatzen eta elikagaien erdiak ekoizten dituzte, baina diru-sarreraren % 10 besterik ez dute jasotzen, eta jabetzaren % 1 besterik ez dute.

Afrikarako GIHen Bulegoaren 2021eko Txostenak dioenez, Afrikako giza garapenaren arloko piramidearen oinarrian landa-eremuetako biztanleak, gazteak eta emakumeak dira nagusi, zeinak beren egoera sozioekonomiko eskasagatik krisiarekiko zaurgarriagoak diren. Hala ere, aurrerapen handiak gertatu dira: emakumeek pobrezia murrizketarik azkarrena bizi izan dute, eta gaur egun hala gizonak nola emakumeak dira pobreak beren biztanleriei dagokienez; dena den, andrazkoek gizonak baino arrisku gehiago dituzte oraindik ere. Txostenak gogora ekarri bezala, "ezein gizartek ezingo du bere ahalmen osoa garatu bai emakumeak bai gazteak ahalduntzen ez baditu eta ez badu emakumeek esparru guztietan erabat parte hartzeko traba oro desagerrarazten. Afrikak ingurune egokia eskaini behar du bertako andrazkoak, haurrak eta gazteak loratu, eta beren ahalmen osoa gara dezaten".

Agenda 2063ren ezarpenari buruzko bigarren txosten kontinentalean, 2022ko otsailekoan, 6. helburuari dagokionez –eta 2024an bukatuko den hamar urteko planerako ezarritako xede eta jomugei dagokienez, zeinen artean "genero-berdintasun osoa bizitzako alor guztietan" (17. xedea) zegoen– emaitzak nahiko etsigarriak izan zirela aipatzen da:

“Aztertutako epealdian [...] emaitza onak izan zituzten arloen artean, andrazkoek legebiltzarrean dituzten eserlekuen proportzioa dago: 2013an % 21ekoa izan zen, eta 2021ean % 27,6koa, 2021erako ezarritako % 28ko helburutik oso-oso gertukoa. Kontinentean, sexu-indarkeria eta indarkeria fisikoa jasaten duten emakume eta neskatuen proportzioa ere nabarmen murriztu zen: 2013an, % 41,6; 2021ean, % 21,2.

[...] Hala ere, kontinenteko emaitzak nahiko eskasak izan ziren emakumeek nekazaritza-lurraren gainean dituzten jabetzari edo eskubide seguruei dagokienez. Aztertutako epealdian, nekazaritza-lurraren gaineko jabetza edo eskubide seguruak dituzten nekazari guztien artean, emakumeen proportzioa zertxobait handitu zen: 2013an, % 16; 2021ean, % 23. Dena den, emaitzak ez ziren heldu 2021erako ezarritako helburura: % 39.

Orobat, mutilazio edo ablazio genital femeninoa jasan zuten 15 eta 49 urte bitarteko nesken eta emakumeen proportzioa % 38tik % 27ra murriztu zen, 2021erako ezarritako % 23ko helburuari dagokionez % 70eko etekina erregistratuta.

Alta, jaiotako eta aurreneko urtean erregistratzen diren haurren proportzioan askoz ere aurrerapen txikiagoa izan zen kontinentean. Balio agregatuak 2013ko % 29tik 2021eko % 46ra handitu ziren, balio nahiko txikiak 2021erako ezarritako helburua kontuan hartuta: % 100.

Tamalez, lanean diharduten, ezkontzera behartuak diren eta haur-salerosketako biktima diren haurren ehunekoak hazi egin ziren Afrikan”.


5. 13 GIH-a (Klima babesteko ekintza) eta kontinente Afrikarra

13. GIHa, (Klima-aldaketari eta haren ondorioei aurre egiteko premiazko neurriak hartzea), egungo krisi ekologikoaren ondorioz arriskuan dauden bizitzen eta bizirik irauteko baliabideen babesarekin lotuta dago. GIH honetarako ezarritako helburuen artean, honako hauek daude:

- Klimarekin eta hondamendi naturalekin lotutako arriskuekiko erresilientzia eta arriskuotara egokitzeko gaitasuna herrialde guztietan sendotzea.
- Politika, estrategia eta plan nazionaletan klima-aldaketari aurre egiteko neurriak txertatzea.
- Klima-aldaketa arintzeari, hari egokitzeari, haren ondorioak murrizteari eta alerta goiztiarrari dagokienez norbanakoen eta erakundeen sentsibilizazioa eta gaitasuna hobetzea.
- Urtero, batera [herrialde garatuek], iturri guztietatik bildutako 100.000 milioi dolar mobilizatzea garapen-bidean diren herrialdeen premiei erantzuteko, klima-aldaketa arintzeko neurriak hartzeari eta horiek aplikatzeko orduan gardentasunari dagokienez, eta Klimarako Funts Berdea ahalik eta lasterren jartzea erabat abian, ahalik eta azkarren kapitalizatuta.
- Gutxien aurreratutako herrialdeetan eta garapen-bidean diren uharteetako Estatu txikietan klima-aldaketari begirako plangintza eta kudeaketa eraginkorretarako gaitasuna areagotzeko mekanismoak sustatzea, emakumeak, gazteak, tokiko komunitateak eta komunitate baztertuak bereziki aintzat hartuta.

Klima-aldaketaren ondorioek eta klima-krisiarekin lotutako egoerak okerrera egin izanak herrialde guztiei, latitude guztietan, eta giza kolektibo guztiei eragiten diete. Hala ere, 13. GIHa ezarritako helburuetan bertan, aise suma daiteke ondorio horiek ez direla berdinak denentzat, alegia, herrialde eta kolektibo batzuk beste batzuk baino kaltetuago daudela.

Klima-aldaketaren aldagaiak, ingurumen-aldagaia izateaz gain, giza espeziearen eta naturaren arteko harremana neurtuko du. Beraz, ezin dugu beste gizarte-faktore batzuetatik bereizi, hala nola faktore ekonomiko, politiko edo historikoetatik. Kontinente afrikarra klima-aldaketaren paradoxaren adierazgarria izango da; izan ere, zoritxarrez, klima-aldaketak munduan gehien kaltetutako eta hala ere, sortutako



CO2-mailak kontuan hartuta, haren areagotzea gutxien bultzatu duten herrialdeetako batzuk topatuko ditugu bertan.

Klima-aldaketaz eta kontinente afrikarraz hitz egitean, kontuan hartu behar ditugu kontinentearen garapenaren barruan klimarekiko sentikorrak diren sektoreetan berriki gertatutako aurrerapenak. Afrikar askoren diru-iturriak eta elikadura lehen sektoreetatik datoz, nekazaritza eta arrantzatik, kasu, baina tenperaturen igoerak, itsas mailaren igoerak eta prezipitazio irregularrek sektoreok kaltetzen dituzte.

Munduko Meteorologia Erakundearen (WMO) Klima Afrikan 2020 (2021) Txostenaren arabera, kontinente afrikarrean klima-aldaketaren adierazle guztiak munduko batezbesteko estatistikoaren gaineratik daude (urteko batez besteko tenperaturak, itsas mailaren igoera-tasak, glaziarren atzerakada-tasak...). Era berean, elikadura-segurtasunik eza ehuneko 5-20 puntu artean handitzen da Saharaz hegoaldeko Afrikan izaten den uholde edo lehorte bakoitzaren ondorioz, eta biztanleriaren lekualdatze berri guztien % 12 mundu osoan Afrikako Ekialdean eta Adarrean gertatzen dira. Orobat, nagusiki uholdeek eta ekaitzek bultzatu zituzten lekualdatze horiek, eta ondoren lehorteek.

Halaber, klima-aldaketak ez die neurri berean eragiten herrialde guztiei, ezta herrialdeetako kolektibo guztiei ere. Klima-aldaketak eta hark sortzen dituen ingurumen-krisiek gizarte-desberdintasunak areagotzen dituzte, gizon eta emakumeek baliabide natural, ekonomiko, sozial edo politikoak eskuratzeko ahalmenarekin lotutako desberdintasunak, hain zuzen ere.

Lehenik eta behin, etxeko lanez andrazkoak arduratzen dira ia guztiz oraindik ere, bai seme-alaben hazkuntzaz bai sukaldeaz eta garbiketaz, "rol hirukoitzak" hartu ohi baitituzte beren gain: ekoizpen-, ugalketa- eta komunitate-ardurak.

Klima-aldaketak eragindako ingurumen-krisiak egiturazko genero-arrakala hau areagotuko du, andreek sarritan gizonen baino lan-bolumen handiagoei aurre egin behar izaten dietelako, muturreko fenomeno meteorologikoen eta klima-aldaketaren ondorioz. Hori dela eta, emakumeen lan-zama handiagoa da, langile eta zaintzaile gisa dituzten betebeharrak gehigarriengatik, eta horrek larritasun psikologiko eta emozional handiagoa dakarkie, bai eta elikagai gutxiago jatea, lekualdatzeak osasun mentala kaltetzea eta, kasu batzuetan, etxeko indarkeriaren intzidentzia areagotzea ere. Horren guztiaren ondorioz, bizirik irauteko aukera eskasagoak dituzte gizonen baino, baita, gainera, mugitzeko gaitasun txikiagoa daukatelako eta erabakiak hartzeko orduan parte hartzen ez dutelako ere.



ODSeando África

Afrikan emakumeen Garapen Iraunkorrerako
Helburuetan aurrera egiten



GARAPENERAKO
LANKIDETZAREN
EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN PARA
EL DESARROLLO



Nazioarteko Elkartasuna
Solidaridad Internacional